**Euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaileak**

Azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, herritarren eskubide gisa aitortzen du euskara jakitea (5. artikulua), eta herri-aginteei ezartzen die eskubide hori ziurtatzeko neurriak hartu beharra (6. artikulua).

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, udalei izendatzen die, eskumen propio gisa, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz (7. artikulua).

Bide beretik, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, zera dio: hizkuntza-arloko udal-eskumen propioa legez bereganatzeak berekin dakarrela hizkuntzaren erabilera dinamizatzeko eta hizkuntza horren ikaskuntza sustatzeko neurriak hartzeko konpromisoa (8.2 artikulua).

Debako Udala UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kidea da, eta helburu du neurri aurrerakoiak hartzea euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatzeko.

Debako Udalak oinarriak, irizpideak eta prozedura arautu nahi ditu, euskara ikasi nahi duten eta zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrei bekak emateko. Helburua da herritarrek euskaraz alfabetatzeko eta euskara ikasteko duten eskubidea bermatzea, horretarako bekak emanez.

Debako Udalak, beraz, erabaki du euskara ikasteko bekak emateko oinarri arautzaile hauek onartzea.

**1. Xedea.**

Bases reguladoras para la concesión de becas para el estudio del euskara

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, reconoce el conocimiento del euskera como un derecho de la ciudadanía (artículo 5) e impone a los poderes públicos la necesidad de adoptar medidas para asegurar dicho derecho (artículo 6).

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuye a los Ayuntamientos, como competencia propia, la promoción del conocimiento y la dinamización del uso del euskera en su ámbito territorial, mediante la organización directa de servicios y actividades, o la colaboración en la financiación de actividades de promoción y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades (artículo 7).

En el mismo sentido, el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, señala que la asunción legal de la competencia propia municipal en materia lingüística implica el compromiso de adoptar medidas para dinamizar el uso de la lengua y fomentar su aprendizaje (artículo 8.2).

El Ayuntamiento de Deba es miembro de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes UEMA y su objetivo es adoptar medidas progresistas para normalizar el uso del euskera y respetar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El Ayuntamiento de Deba quiere regular las bases, los criterios y el procedimiento para conceder becas a las personas que quieran aprender euskera y tengan dificultades económicas. El objetivo es garantizar el derecho de la ciudadanía a alfabetizarse en euskera y a aprender euskera, mediante la concesión de becas para ello.

El Ayuntamiento de Deba, por tanto, ha decidido aprobar las siguientes bases reguladoras para la concesión de becas para estudiar euskera.

1. Objetivo.

Beka honen helburua da Deban erroldatutako herritarrak bultzatzea euskara ikastaroetan parte hartzera, horretarako bekak emanez.

El objetivo de esta beca es incentivar a la ciudadanía empadronada en Deba a participar en los cursos de euskera, mediante la concesión de becas para ello.

Beka jasotzeko, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak onartutako zentro batean matrikula egin beharko dute herritarrak, ikastaro presentzial, autoikaskuntzako edo misto batean, eta oinarri hauetan zehaztutako baldintzak bete.

Para poder optar a la beca, la ciudadanía deberá matricularse en un centro reconocido por el Instituto de Alfabetización y Euskaldunización de Adultos, HABE, en un curso presencial, de autoaprendizaje o mixto y cumplir los requisitos especificados en estas bases.

**2. Onuradunak.**

Baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute beka:

- 60 orduko AISA ikastaro batean matrikulatzea, HABEk onetsitako zentro batean.
- 16 urte edo gehiago izatea.
- Deban erroldatuta egotea.
- Beka jasotzeko inolako debekurik ez izatea.
- Aurretik ikasmaila berberean matrikulatzeagatik dirulaguntza jaso ez izana.

Horretarako, honako egoeraren batean egon beharko du eskatzaileak:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzea.
- Errenta aitorpena egitetik salbuetsita egotea.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen txosten batek eskatzailearen egoera zaurgarria baieztatzea.

2. Beneficiarios.

Podrán solicitar la beca quienes cumplan los siguientes requisitos:

- Matricularse en el curso AISA de 60 horas de iniciación en un centro autorizado por HABE.
- Tener 16 años o más.
- Estar empadronado en Deba.
- No estar incurso en prohibición alguna para obtener beca.
- No haber percibido subvención por matricularse con anterioridad en el mismo curso.

Para ello, la persona solicitante deberá encontrarse en alguna de las siguientes situaciones:

- Percibir la Renta de Garantía de Ingresos.
- Estar exento de realizar la declaración de renta.
- Tener un informe de los Servicios Sociales municipales que confirme la situación de vulnerabilidad de la persona solicitante.

**3. Bateragarritasuna.**

1. Oinarri hauen xede diren bekak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek eman dezaketen edozein laguntzarekin, xedea berbera izanda ere.

2. Beste laguntza batzuk jasotzen badira, guztira jasotako zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Oinarri hauetan araututako bekak ez dira estatu laguntza, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1

3. Compatibilidad.

1. Las becas objeto de estas bases son compatibles con cualesquiera otras que, teniendo el mismo objeto, pudieran ser otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados.

2. En el supuesto de que se perciban otras ayudas, el importe total percibido no podrá superar el coste de la actividad subvencionada.

3. Las becas reguladas en estas bases no constituyen una ayuda de Estado, de acuerdo con lo establecido en el artículo 107.1 del

artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunak ez baitira jarduera ekonomikoak egiten dituzten enpresak; ondorioz, laguntza horiek ez dira sartzen tratatu horren 108.3 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-prozeduran.

Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, puesto que los beneficiarios no son empresas que realicen actividades económicas, por lo que dichas ayudas no entran en el procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

**4. Eskaera aurkezteko behar den dokumentazioa.**

Bekak eskatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Beka eskatzeko eskabidea, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta.
- 2. oinarrian jasotako egoeraren bat ziurtatzen duen agiria.
- Euskaltegian 60 orduko hastapen ikastaroan matrikulatuta egotearen ziurtagiria, prezioa zehaztuta.
- Kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.

**4. Documentación necesaria para presentar la solicitud.**

La solicitud de las becas deberá ir acompañada de la siguiente documentación:

- Solicitud de la beca debidamente cumplimentada según modelo normalizado.
- Documento acreditativo de alguna de las situaciones recogidas en la base 2ª.
- Certificado de matriculación en el curso de iniciación de 60 horas en el euskaltegi, especificando el precio.
- Certificado de titularidad de la cuenta corriente.

**5. Eskaera aurkezteko modua eta epea.**

1. Udal erregistroa erabiliz aurkeztu ahalko da eskaera, elektronikoki edo presentzialki.

2. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo dira Udalaren egoitza elektronikoan eta udal harrera bulegoetan.

3. Urteko deialdian zehaztuko da eskaerak aurkezteko epea.

4. Eskatzaileek ez dituzte aurkeztu beharko jadanik Udalaren esku dauden dokumentuak, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. Eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak aitortuko du betetzen dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak, eta osotasunean onartzen dituela oinarri hauek.

**5. Forma y plazo de presentación de la solicitud.**

1. La solicitud podrá presentarse por vía electrónica o presencial utilizando el Registro municipal.

2. La información de cada convocatoria y las instancias normalizadas estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento y en las oficinas de atención municipal.

3. En la convocatoria anual se determinará el plazo de presentación de solicitudes.

4. La personas solicitantes estarán exentas de presentar los documentos que obren en poder del Ayuntamiento, de conformidad con lo previsto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5. Con la presentación de la solicitud, la persona solicitante declarará que cumple con todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta en su integridad las presentes bases.

**6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea**

1. Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan akatsen bat badago edo

**6. Subsanación de defectos y aportación de documentación complementaria.**

1. Si la solicitud o la documentación que la acompaña adoleciera de algún defecto u

zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik egin gabe.

omisión, se requerirá al o la solicitante para que, en el plazo de diez días, subsane la falta, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre. Transcurrido dicho plazo sin que se haya procedido a la subsanación, se presumirá la renuncia de la persona solicitante y se procederá a su archivo sin más trámite.

2. Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

2. El Ayuntamiento podrá requerir a a las personas solicitantes cuanta información complementaria considere necesaria para comprobar la veracidad de lo indicado en la solicitud.

**7. Bekak emateko prozedura.**

1. Konkurrentzia bidez emango dira bekak

2. Ofizioz hasiko da bekak emateko prozedura, deialdi publiko baten bidez. Deialdia organo eskudunak onartuko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

3. Abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikulua betez, emandako dirulaguntzak argitaratu egin beharko dira Debako Udalaren Gardentasun Atarian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, zenbatekoa, helburua edo xedea eta onuradunak adierazita.

4. Deialdia iragarki-taula digitalean eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Nolanahi ere, Udalak oinarri horien eta gainerako argitalpenen berri emango du egokitzat jotzen dituen bitartekoak erabiliz.

7. Procedimiento de concesión de la beca.

1. Las becas se concederán por concurrencia competitiva.

2. El procedimiento para la concesión de las becas se iniciará de oficio mediante convocatoria pública. La convocatoria será aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

3. En cumplimiento del artículo 8 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, las subvenciones concedidas deberán publicarse en el Portal de Transparencia y en la Base de Datos Nacional de Subvenciones del Ayuntamiento de Deba, con indicación de su importe, finalidad o finalidad y beneficiarios.

4. La convocatoria se publicará en el tablón de anuncios digital y en la página web del Ayuntamiento. En todo caso, el Ayuntamiento informará de estas bases y del resto de publicaciones por los medios que estime oportunos.

**8. Beken zenbatekoa**

1. Honako irizpide hau aplikatuko da:

60 orduko hastapen ikastaroa: matrikularen % 100, ikastaroa hasterako.

2. Bekaren zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.

8. Cuantía de las becas.

1. Se aplicará el siguiente criterio:

Curso de iniciación de 60 horas: 100% de la matrícula, a la fecha de inicio del curso.

2. El importe de la beca en ningún caso podrá ser superior al coste del curso o actividad.

**9. Prozedura bideratzeko, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak.**

9. Órganos competentes para la tramitación, instrucción y resolución del procedimiento.

1. Beka emateko prozeduraren instrukzioa egitea Euskara Zerbitzuari dagokio.

1. La instrucción del procedimiento de concesión de la beca corresponde al Servicio de Euskera.

2. Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena eta ebazpen- proposamena egingo ditu. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan.

2. El Servicio de Euskera analizará las solicitudes y elaborará un informe y propuesta de resolución para su valoración. En dicha propuesta detallará el resultado de la evaluación realizada y lo elevará al órgano competente para su aprobación.

3. Alkatetzak izango du oinarri hauetan jasotako bekak ematea ebazteko eskumena.

3. Será competente para resolver la concesión de las becas contempladas en estas bases la Alcaldía.

4. Hiru hilabetekoa izango da dagokion ebazpena emateko, argitaratzeko edo jakinarazteko gehienezko epea. Eskaera aurkezteko epea amaitzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epe hori, salbu eta deialdiak ondorioak atzeratzen baditu.

4. El plazo máximo para dictar, publicar o notificar la resolución correspondiente será de tres meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a aquel en que finalice el plazo de presentación de solicitudes, salvo que la convocatoria retrase sus efectos.

5. Epe hori igaro eta ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskabidea administrazio-isiltasunez.

5. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

**10. Onuradunen betebeharrak.**

1. Honako betebehar orokor hauek dituzte bekaren onuradunek:

- Izena emandako ikastaroan parte hartzea.
- Irakaslearen aprobetxamendu-txostena aldekoa izatea.
- % 75etik gorako asistentzia egiaztatzea. Asistentzia zenbatzean, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
    - Ikasle batek lanagatik ezin badu euskaltegira joan ordutegi horretan (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko da).
    - Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
    - Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko da).
- Beka zertarako jaso den, horretarako erabiltzea.
- Oinarri hauetan zehaztutako eran aurkeztea justifikazioak.

**10. Obligaciones de las personas beneficiarias.**

1. Las obligaciones generales de las personas beneficiarias de la beca son las siguientes:

- Participación en el curso en el que se inscriba.
- Informe de aprovechamiento del profesor o profesora favorable.
- Acreditación de una asistencia superior al 75%. En el cómputo de la asistencia no se considerarán faltas los siguientes supuestos:
    - En el caso de que no se pueda acudir al euskaltegi por motivos de trabajo en ese horario (se deberá aportar certificado de la empresa).
    - Enfermedad (se deberá presentar certificado médico).
    - Necesidad de reposo por embarazo (se deberá aportar certificado médico).
- Utilizar la beca para el fin para el que ha sido concedida.
- Presentar las justificaciones en la forma especificada en estas bases.

- Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapen eta -kontroleko beste edozein jarduketari ere, eta eskatzen zaion informazio guztia ematea.

2. Deialdiak ezar ditzake beste betebehar espezifiko batzuk.

**11. Bekaren ordainketa.**

Beka ematea Alkatetzaren Dekretu bidez ebatzi ondoren, era honetan egingo da ordainketa: zenbatekoaren % 100, erabakia hartu eta hamabost eguneko epean. Ordainketa guztiak interesdunak emandako kontu-korrontera banku-transferentzia eginez pagatuko dira. Kontu korronte hori hirugarrenen fitxan jasoko da.

**12. Bekak itzultzea.**

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta laguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluan ezarritako xedapenek arautuko dute laguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako irizpide hauek zehazten dira laguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: %100
- %75eko asistentzia (salbuespenak alde batera lagata) ez betetzea: %100
- Irakaslearen aldeko aprobetxamendu-txostenik ez aurkeztea: %100

**13. Araudi aplikagarria.**

- Someterse a las actuaciones de comprobación a realizar por el órgano concedente de la ayuda, así como a cualquier otra actuación de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida.

2. La convocatoria podrá establecer otros requisitos específicos.

11. Abono de la beca.

Una vez resuelta la concesión de la beca mediante Decreto de Alcaldía, se procederá al pago del 100% de la misma en el plazo de quince días desde su resolución. Todos los pagos se abonarán mediante transferencia bancaria a la cuenta corriente facilitada por el o la interesada. Esta cuenta corriente se recogerá en la ficha de terceros.

12. Reintegro de becas.

1. En los supuestos previstos en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora desde la fecha del pago de la ayuda hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro.

2. El procedimiento de reintegro de las ayudas se regirá por las disposiciones establecidas en el Capítulo II del Título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y en el Capítulo II del Título III del Reglamento aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

3. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.3.n) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, para graduar los incumplimientos de las condiciones impuestas en la concesión de la ayuda, con los porcentajes a reintegrar en cada caso, se establecen los siguientes criterios:

- Obtención falseando u ocultando las condiciones: 100%
- Incumplimiento del 75% de asistencia (salvo excepciones): 100%
- No aportar informe de aprovechamiento a favor del profesor: 100%

13. Normativa aplicable.

Oinarri hauen xede diren laguntzak arautuko dituzte, oinarri hauetan xedatutakoaz gain Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako garapen-erregelamenduak, eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko gainerako arauek.

**14. Indarrean sartzea.**

Oinarri hauek indarrean sartuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Las ayudas objeto de estas bases se regirán, además de por lo dispuesto en estas bases, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por el Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

14. Entrada en vigor.

Las presentes bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.